



GIPUZKOAKO FUTBOL KLUBEN DIAGNOSIA, 2019

LABURPEN TXOSTENA

1. METODOLOGIA

Ikerketa hau garatzeko, hasteko, Gipuzkoako futbol klub guztiekin harremanetan jarri da Aztiker, klub bakoitzeko kontaktu zuzena eta kontakturako pertsona egokia zein den jakiteko. Ondoren, Eusko Jaurlaritzatik ikerketaren berri ematen duen emaila bidali zaie klub guztiei eta segidan, Aztikerrek inkesta bat helarazi die arduradunek betetzeko. Landa lana 2019ko urria eta Abendua bitarte gauzatu da. Futbol klub bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egin da erantzun tasa ahalik eta altuena jasotzeko helburuarekin.

Ikerketa objektu diren futbol klubak zein diren jakin ahal izateko Gipuzkoako Futbol Federazioaren datu base bat erabili du Aztikerrek. 86 klubeko datu basea erabiliko zela adostu bazen ere, kontaktazioak egin ostean, horietatik 8 azken urteetan desegin direla suertatu da eta 2 klub berri ere topatu dira, azken urtebetean sortutakoak. Hortaz, 80 klubeko datu basearekin egin da aurrera eta horietatik 52k bete dute inkesta azkenean (%65eko erantzun-tasa).

Hona hemen 88 klubeko datu baseko kasuistika zehatza:


DATU BASEKO KONTAKTUEN EGOERA	KOPURUA
Bukatuak, inkesta baliogarriak	52
Ez duela bete nahi erantzun du	6
Seniorretako taldeak bakarrik ditu, ez dagokio erantzutea	2
Jarraipena egin zaio baina ez du bete	20
Kluba ez da existitzen	8
Guztira	88

Landa lana gauzatzeko prozedimendua honakoa izan da:

- Hasteko, klub guztiekin harremanetan jarri da Aztiker, klub bakoitzeko kontaktu zuzena eta kontakturako pertsona egokia zein den jakiteko. Datu basea osatu da horrela (urrian).
- Ondoren, Eusko Jaurlaritzatik ikerketaren inguruko email informatibo bat helarazi zaie klubei, inkesta betetzeko eskatuko zaiela berri emanaz (urrian).
- Segidan, Aztikerreko teknikari batek inkesta helarazi die klubeko arduradunei eta jarraipen pertsonalizatua egin die (azaroa eta abendua).

LABURPEN TXOSTENA

Behin landa lana amaituta, baliozko 65 inkestekin datu basea osatu, araztu eta ustiatu da. Dokumentu honetan jasotzen diren taulek islatzen dituzte inkestaren emaitzak.




2. EMAITZA NAGUSIAK ZENBAKIETAN



FUTBOL FEDERATUAREN UNIBERTSOA ETA ERAGINA GIPUZKOAN

TALDE ETA JOKALARI KOPURUA, KATEGORIAKA

	Jokalariak	Jokalariak %100eko erantzun tasarekin	Gipuzkoako populazioa (Eustat, 2018)	Gipuzkoako populazioa % futbol federatuan
Jubenilak (16-18 urte)	1.738	2.674	15.049	17,8
Kadeteak (14-15 urte)	2.353	3.620	15.001	24,1
Infantilak (12-13 urte)	2.515	3.869	14.539	26,6
Alebinak (10-11 urte)	2.122	3.265	14.102	23,2
Benjaminak (8-9 urte)	1.643	2.528	20.131	12,6
Guztira	10.371	15.955	78.822	20,2

Iturria: Aztiker, 'Gipuzkoako futbol klubuen diagnostia' osatzeko inkesta, 2019.








FUTBOL FEDERATUKO JOKALARIEN HARREMANA EUSKARAREKIN

FUTBOL FEDERATUKO ENTRENATZAILEEN HARREMANA EUSKARAREKIN

		Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Sexua	■ Gizonezkoa	655	92,0
	■ Emakumezkoa	57	8,0
Adin tartea	■ 16-29 urte	365	53,9
	■ 30-44 urte	164	24,2
	■ 45+ urte	148	21,9
Formazioa	■ Bat ere ez	437	62,3
	■ 1 maila	118	16,8
	■ 2 maila	64	9,1
	■ 3 maila	83	11,8
Euskara gaitasuna	■ Euskara ulertu eta hitz egiten du	630	88,5
	■ Euskara ulertzen du, hitz egin ez	40	5,6
	■ Ez daki euskaraz	42	5,9
Entrenatzaileen arteko hizkuntza	■ Dena edo gehiena euskaraz	383	53,8
	■ Erdi eta erdi	167	23,5
	■ Gutxi edo batere ez euskaraz	162	22,8
Jokalarienganako hizkuntza	■ Dena edo gehiena euskaraz	396	55,6
	■ Erdi eta erdi	170	23,9
	■ Gutxi edo batere ez euskaraz	146	20,5
Guztira		712	100,0

Iturria: Aztiker, 'Gipuzkoako futbol klubuen diagnostika' osatzeko inkesta, 2019.





Entrenatzaileak, kategoria eta **formazioaren arabera**

 Entrenatzaileak, kategoria eta **jokalariei begira erabilitako hizkuntzaren arabera**

 Entrenatzaileak, emakumezko/gizonezko futbola eta **formazioaren arabera**

 Entrenatzaileak, emakumezko/gizonezko futbola eta **jokalariei begira erabilitako hizkuntzaren arabera**


FUTBOL FEDERATUKO TITULAZIORIK GABEKO ENTRENATZAILEAK**Gipuzkoako futbol klubetako titulaziorik gabeko entrenatzaileak, ezaugarri nagusiak**



		Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Sexua	■ Gizonezkoa	388	88,8
	■ Emakumezkoa	49	11,2
Adin tartea	■ 16-29 urte	268	63,5
	■ 30-44 urte	83	19,7
	■ 45+ urte	71	16,8
Euskara gaitasuna	■ Euskara ulertu eta hitz egiten du	393	89,9
	■ Euskara ulertzen du, hitz egin ez	19	4,3
	■ Ez daki euskaraz	25	5,7
Kategoria	■ Jubenilak	53	12,1
	■ Kadeteak	99	22,7
	■ Infantilak	120	27,5
	■ Alebinak	95	21,7
	■ Benjaminak	70	16,0
	Guztira	437	100,0


Iturria: Aztiker, 'Gipuzkoako futbol klubetako diagnostika' osatzeko inkesta, 2019.




FUTBOL KLUBEK EUSKARAREKIN DUTEN HARREMANA ETA BEHARRAK**GURUTZAKETA: Klubaren egunerokoan erabiltzen den hizkuntza eta etorkizunean euskararen erabilera sustatzeko beharra**

		Dena edo ia dena euskaraz egiten dute. Ez dute ekintza konkreturik aipatu	Ekintza konkretuak egiten dituzte euskara sustatzeko	Nagusiki gazteleraz egiten dute eta ez dute ekintza konkreturik aipatu
Aurrera begira, etorkizun hurbil batean, zuen klubean euskararen erabilera sustatzeko beharra ikusten duzu?	Bai	15,8	87,5	58,3
	Ez	84,2	12,5	33,3
	ED/EE	0,0	0,0	8,3

FUTBOL FEDERATUKO TALDEEN ARAZO NAGUSIAK

LABURPEN TXOSTENA

FUTBOL FEDERATUKO TALDEEN BEHARREI ERANTZUTEKO LEHENTASUNEZKO PROPOSAMENAK

3. ONDORIOAK

Gipuzkoako 80 futbol klubuen artetik 52k erantzun dute ikerketa hau burutu ahal izateko galdesorta. Erantzun tasa, beraz, %65ekoa izan da. Klub bakoitzeko pertsona edo talde arduradunak hartu du galdesorta betetzeko ardura eta horiek emandako datuetan oinarritu da ikerketa. Erantzun tasa altuena izan duten eskualdeak Debabarrena, Debagoiena eta Donostialdea (Donostiaz apartekoa) izan dira, bertako klubuen hamarretik zortzik baino gehiagok erantzun baitute inkesta. Erantzun tasa baxuena, aldiz, Goierrik eta Donostia hiriburuak eman dute, klubuen erdiek erantzun baitute galdesorta.

Futbol federatuaren unibertsoa eta eragina Gipuzkoan

Guztira inkesta erantzun duten 52 klubek beren egituretan 475 futbol talde dituztela adierazi dute arduradunek, 10.371 jokalarirekin. Kontuan hartu behar da benjaminetatik jubenilak bitarteko taldeak direla denak, 8 eta 18 urte artekoak. Datu hauek Gipuzkoako futbol klub guztietara estrapolatuko bagenitu, galdesorta klub guztiek bete izan balute moduan eta proportzio bereko taldeak lirartekeela oinarri hartuta, 8 eta 18 urte bitarteko 16.000 gaztetxori buruz ariko ginatke. Kontuan hartuta Eustaten arabera Gipuzkoan adin horretako 78.822 pertsona bizi direla (Eustat, 2018), adin tarte horretako herritarren bostetik batek (%20,2) futbol klubuen batean jokatzen du duela esan genezake. Datu hauekin ondoriozta daiteke futbol federatuak pisu eta eragin oso garrantzitsua duela adin honetako gaztetxoaren artean, beste edozein kirolek baino gehiago, eta esparru honetan eragiteak, bai euskaran eta baita berdintasunaren alorrean ere, aldaketa eraginkorrak ahalbidetu ditzakela.

Futbol federatuko jokalarien harremana euskararekin

Futbol taldeetako jokalariekin jarraituz, haien hizkuntza gaitasuna aztertu nahi izan da ikerketan. Datu nagusia da jokalaria ia denak elebidunak direla (%95,1). Elebidun hartzailleak dira %3,1 eta euskara ulertu ere egiten ez dutenak %1,9. Nahiz eta jokalarien euskara gaitasuna oso altua izan, taldekideen artean zein entrenatzaileari begira erabiltzen den hizkuntza gaztelania da kasu askotan. Talde guztiak kontutan hartuta, hamarretik lautuan (%42,0) dena edo gehiena euskaraz hitz egiten da eta beste hainbestetan (%40,1) euskara zein gaztelania erdi eta erdi gutxi gora behera. Gainontzeko %17,8an euskaraz gutxi edo batere ez da hitz egiten. Bai hizkuntza gaitasunean eta baita erabileran ere, ezberdintasunak nabari dira kategoriaren (adina) eta sexuaren arabera. Jokalari gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta, bestetik, emakumezkoen futboleko euskarak presentzia handiagoa du gizonezkoen artean baino.

Futbol federatuko entrenatzaileen harremana euskararekin

Jokalarietatik entrenatzaileetara salto eginda, galdesorta bete duten 52 klubek guztira beren egituretan 712 entrenatzaile / monitore / koordinatzaile dituztela adierazi dute. Datuak sexuaren arabera aztertuz gero, adierazgarria da 712 entrenatzaileetatik 655 (%92,0) gizonezkoak direla. Gizonezkoen futboleko kasik entrenatzaile guztiak gizonezkoak dira eta emakumezkoen futboleko emakume entrenatzaileak ez dira hamarretik seira iristen (%58,8). Hizkuntza gaitasunari dagokionez, entrenatzaileen ia hamarretik bederatzik (%88,5) euskara ondo ulertu eta hitz egiten daki, nahiz eta, erabileran asko egiten den behera. Jokalarien artean bezala, entrenatzaileen kasuan ere, bi joera antzeman daitezke nagusiki. Batetik, entrenatzaile gazteen artean (kategoria baxuetan entrenatzaile direnak) euskara gaitasun eta erabilera handiagoa dago entrenatzaile zaharren artean baino. Eta, bestetik, emakumezkoen euskara gaitasuna eta erabilera, batez ere emakumezkoen futboleko aritzen direnena, altuagoa da gizonezkoena baino. Federatutako futbola maskulinizatutako eremua da eta futbol klub askok esparru hau feminizatze beharra eta interesa adierazten dute, bai berdintasunaren izenean, baita futbol taldeen artetik ere (barnetik sortzen den eskaera bat da) Horrez gain, datuen argitan, badirudi sektore hau feminizatzeak euskararen presentzia areagotu edo bultzatuko lukeela baita ere.

Futbol federatuko entrenatzaileen titulazioa

Entrenatzaileekin jarraituz, datu esanguratsua da gehiengoak (%62,3) ez duela inolako entrenatzaile titulurik eta gainerako %37,7k titulu ofizialen bat duela (1, 2 edo 3. mailakoa). Titulurik gabeko entrenatzaileak 437 pertsona dira inkesta bete duten klubetan eta klub guztiek bete izan balute 675 inguru izan litezkela aurreikusitako daiteke. Titulurik gabeko entrenatzaileen ia hirutik bik (%63,5) 30 urte baino gutxiago ditu.

Kategoria altuetan entrenatzaile helduagoak aritzen dira, entrenatzaile moduan urte gehiago daramatzatenak eta, ehuneko altuago batean, titulazioa dutenak. Aldiz, kategoria baxuetan daude tituludun gutxien eta honek lotura du adinarekin eta esperientzia faltarekin. Euskara gaitasuna eta erabilera, ostera, altuagoa da kategoria baxuagoetan. Zer adierazten digu errealitate horrek? Entrenatzaile gazteen artean titulazio behar handiagoa dagoela eta euskararekiko "esparru aldekoagoa" dela. Egoera honek erraztu ditzake aurrera begira planteatzen diren hainbat proiektu, titulazioa eta euskara lotzen dituztenak.

Futbol federatuko taldeen arazo nagusiak

Bestalde, 2019-2020 denboraldian dituzten hiru arazo nagusiren inguruan galdetu zaie klubei. Gipuzkoako futbol klubuen erdiak (%50,0) adierazi du bere hiru arazo nagusien artean arazo ekonomikoak daudela, klubuen hamarretik lauk (%40,4) adierazi du, bigarren arazo aipatuena bezala, entrenatzaile formatuak topatzeko zailtasuna. Hirugarren postuan aurkitu daiteke instalazio falta, instalazio txikiegiak izatea (%32,7). Arazo nagusiak, hortaz, ekonomia, azpiegiturak eta entrenatzaileak dira.

Entrenatzaileak topatzeko zailtasunetan zentratuz, zehazki, formazioa edo titulua duten entrenatzaileak aurkitzea kostatzen zaie futbol klubei. Gainera, horri gehitu behar zaio kasu askotan entrenatzaile elebiduna aurkitzeko zailtasun gehigarria. Udalerrri handienetan eta erdaldunduenetan kokatutako klubek adierazi dute gehien bat entrenatzaile elebidunen falta.

Futbol federatuko taldeen beharrei erantzuteko lehentasunezko proposamenak

Behar honekin lotuta, zerrenda bat aipatu zaie klubei, etorkizun hurbil batean martxan jarri daitezkeen proiektuekin. Zerrenda horretako proiektuekiko zenbateko interesa luketen markatu behar izan dute. Interes gehien adierazi zaion ekimena 'formazio ikastaroak diruz laguntzea' izan da (%96,2k interes handia edo nahikoa interes adierazi du). Interes handiena sortu duen bigarren proiektua 'klubean dituzuen entrenatzaileei oinarrizko formazio ofiziala eta errekonozitua eskaintzea' izan da (%86,5) eta hirugarrena 'entrenatzaileei zuzenduriko etengabeko formakuntza teoriko-praktikoa' (%82,7). Ondoren datozen hiru proiektuek interes maila antzekoa sortu dute klubuen artean, %75aren bueltakoa. Horien artean daude euskararekin lotura duten bi proiektuak: 'oinarrizko futbol entrenatzaile titulu ofiziala eta errekonozitua euskaraz atera duten entrenatzaileen lan poltsa sortzea' eta 'klubean dituzuen entrenatzaileei zuzenduriko euskaraz entrenatu ahal izateko irizpideak eta laguntza'.

Hortaz, esan bezala, gatzetxoan euskara erabileran eragiteko esparru handi baten aurrean gaude, 8 eta 18 urte arteko herritarren hamarretik bost bere egunerokoan aritzen den esparru batean. Jokalari ia guztiek euskara badakite eta haien erreferenteen, entrenatzaileen, artean ere oso altua da euskara gaitasuna. Erabileran saltoa emateko osagaiak badaude eta horretarako tresna eraginkorrak jartzea da orain beharrezkoa. Klubuen aldetik beharra badago, adierazi dute tituludun entrenatzaile elebidunak falta dituztela eta, era berean, entrenatzaile elebidun mordoa dago inolako formaziorik gabekoa (emakumezkoen futbolearen are gehiago). Klubuen aldetik euskara sustatzeko gogoia ere badago eta prest asko daude sustatzeko pausoak emateko edo proiektuetan parte hartzeko (entrenatzaileei formazioa euskaraz ematea, sentsibilizazio kanpainak, kurtsoak eta abar).

Ez da ahaztu behar klubuen hirutik batek jada bere egunerokoan euskaraz funtzionatzen duela. Eta hauek sentsibilizazio kanpainez gain (positiboki ikusten dituztenak) ekintza konketuagoak edo eraginkorragoak eskatzen dituztela, esaterako, beren entrenatzaileek euskarazko formazio ofiziala jasotzea, partiduetako epaileak elebidunak izatea edo Federazioaren kurtsoak eta formazioak euskaraz jaso ahal izatea.

Azken batean, klubuen errealitatea eta haiek kokatuta dauden zonaldearen ezaugarri soziolinguistikoak oso ezberdinak izan daitezke eta, beraz, hizkuntzari dagokionez bakoitzaren behar zein erritmotara egokitzen jakitea klabea da. Hala ere, argi dago gaur egun klubetako jokalaria eta entrenatzaile gehienek euskaraz egiteko gaitasuna dutela. Orain erabileran aurrera pausua emateko garaia bada, klubei esfortzua egiteko eskatzeaz gain, instituzioek tresnak eta baliabideak jarri behar dituzte helburu hori gauzatzeko.

Entrenatzaileen eta epaileen erreferentzialtasuna oso handia da jokalariengan. Entrenatzailea elebiduna ez izateak taldearen dinamika gaztelaniaz izatea dakar berekin, epaile erdalduna izateak partiduaren dinamika gaztelaniara daraman bezalaxe. Baina, bestalde, entrenatzailea elebiduna izateak ez du ezinbestean taldearen dinamika euskalduna izatea esan nahi, erabilera datuek erakusten duten moduan. Beraz, tresnak garatu behar dira entrenatzaile eta epaileengan eragiteko (formazioak euskaraz, titulazio ofizialak euskaraz, lan poltsak eta abar), pertsona horiek futbol federatuaren dinamika osoan eragiten dutelako ondoren.